



## Bi punturen arteko distantzia

**D**agoeneko frogatu da puntu biren arteko distantziarik laburrena leerro zuzenarena dela” –irakur zitekeen Aran Santamariaren *Hostoz hosto erantzi* erakusketako orri solte batean– “oraindik ikertzeaz dagoena bestea da, puntu biren arteko distantziarik luzeena zein den”. Matematiketan Euklidesek planteatu zituen postulatuengain inguruan hausnartzeko erabil daitezkeen paragrafo hau, azken urtebetean norbanakoon artean sortzen ari den distantziaren inguruko hausnarketa egiteko ere aproposa izan liteke. Izan ere, hainbatetan, fisikoki gertu izan ditugun kolektiboak neurgaitzak diren distantzietara izango bagenitu legez tratatu ditugu.

Pandemiagatik alarma egoera hasi aurreko hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizimodu Independentearen Programa ezagutzeko parada izan nuen, desgaitasun fisikoa duten edota mendekotasun egoeran dauden lagunek euren bizitzan giltzarri diren gaietan erabakiak hartzeko eskubidea bermatzea helburu duen programa, alegia. Diru-laguntza hauekin, egunerokotasunean bizitza errazteaz gain, pertsona hauek bizi nahi duten leku eta moduaren inguruan erabakitzeko boterea ahalbidetu nahi da kontratazio puntualak eginez. Ekimen hau zabaltzeko eta sustatzen duen askok, jendartearen gehiengoak duen erabakitzeko aukera berdina izateko eskubidea aldarrikatu ohi du. Are gehiago, Nazio Batuen

Hainbatetan,  
fisikoki gertu izan  
ditugun kolektiboak  
neurgaitzak diren  
distantzietara izango  
bagenitu legez  
tratatu ditugu

Erakundeak onartutako eta giza eskubideen nazioarteko tresna gisa erabiltzen den *Pertsona desgaituen eskubideei buruzko konbentzioa*-n modu argian zehazten da norberaren autonomia eta independentziarako ezinbestekoa dela erabakiak hartzeko askatasuna izatea.

Beste hainbat autonomia erkidegotan ere Bizimodu Independentea sustatzeko ekimenak martxan izan dira azken urteotan. Interesgarria da, esaterako, 2017an argitaratutako Andaluziako programaren eragin ekonomiko eta sozialak aztertzen dituen lanaren ondorioen artean duintasuna dela hizpide, hots, erabakiak libreki hartzeak dakarren garapen pertsonala. Honekin batera, elkarriketatuak izan ziren erabiltzaileek aipatu zuten askatasun horrek euren eskubide sozial eta politikoak ere indartzen zituela, gizartean parte-hartzea bultzatuz.



IRATI LABAIEN EGIGUREN  
EHU-KO IRAKASLEA

Halarik ere, ebaluazio kualitatiboez gain, analisi ekonometrikoak ere egin dira, nolabait, programak eragindako gizarte-balioa dirutan kalkulatzeko asmoz. 2014an Madrilgo Erkidegoko Gizarte Gaietako Saisetetik argitaratutako analisiak zehaztu zuenaren arabera, administrazioak programan inbertitutako 100 euroko, zerga eta gizarte segurantzari loturiko ekarpenekin administrazioari bueltan zetorkiona 92 eurotan kontabilizatu zen. Are gehiago, erabiltzailearen diru-sarrera eta gastuak kontabilizatuz gero, inbertsio kantitate berarekin, itzulkina 132 eurokoa litzatekeela zioen.

Zenbakiak zenbaki, eta egiari zor, egoera honetan daudenetatik Bizimodu Independenteari atxikitakoak gutxienekoak dira. Maiz, egoitzetan eta familiarterako zaintzapean egon ohi dira, eta erabakitzeko askatasunari dagokionean eredu hauek mugatuagoak direla aipatzen da ikerlan hauetan: alde batetik egoitzetako egunerokotasunak, oro har, jarraibide zehatzagoak dituelako (ordutegiak, sartu-irtenak, jakiak...), eta beste aldetik, familiarterako zaintzak ere baldintzatu ahal ditzakeelako norberaren hautuak. Miserikordiatik begiratu izan zaio historikoki kolektibo honi, eta oraindik ere hainbat diskurtsotan nabari da kutsu hori. Karitateak urrundu egiten gaitu eskubideen prisma, eta enpatiazko begirada zuzenaren orde, soa desbideratu ohi dugu, inoiz elkartzen ez diren bi leerro zuzen sortuz. ●